

La fundación Sustrai Erakuntza pide que el dinero del TAV se destine a la transición ecosocial

SUSTRAI ERAKUNTZA :: 10/12/2020

[Euskara]

Sustrai Erakuntza fundazioak AHTren dirua trantsizio ekosozialera bideratzea eskatzen du

Orain Ardura ekimenak hainbat mobilizazio deitu ditu larunbat honetarako, Abiadura Handiko Trena (AHT) egiteko erabiltzen diren diruak premia sozial larrienetara bideratzea eskatzeko. Orain Ardura hainbat gizarte sektoreak bultzatutako ekimen bat da. Ekimenak gobernuek egiten dituzten **gastuak era arrazional batean** egitea eskatzen du, krisi soziosanitarioa ahalik eta azkarren konpontzeko. Sustrai Erakuntza fundazioan uste dugu aldarrikapen hori inoiz baino beharrezkoagoa dela.

Duela gutxi ezagutu genuen Trantsizio Ekologikorako eta Erronka demografikorako Ministerioak erabat iraungitzat jo zuela Iruñerriko AHTaren proiektua. Nafarroako AHTa, obretan daramatzan 9 urteetan eraikitako plataformaren 15 km-tik ozta-ozta igaro den proiektua da, guztira 200 km-tik gora dituena. Gobernua **diru publikoa xahutzen** ari den proiektua da AHTarena. Eta bitartean, handik gertu eta modu paraleloan, korridore horretan dauden garraio iraunkorraren premia guztiak asetu eta **hobetzeko aukera** asko dituen **trenbide** bat igarotzen da.

Egoera horretan, eta krisi ekonomiko handia dugun arren, Nafarroako Gobernuak proiektu hori bultzatzen jarraitzen du, eta **pozik dago Estatuko Aurrekontu Orokoretatik 62 milioi lortu dituelako**. Are urrunago doa, eta finantzaketa hori handitzeko eskatu du, Covidien krisiaren ondoren susperraldi ekonomikorako Europako Funtsen bidez.

Gure ustez, ez da **zaharkitutako lan** horiek mantentzeko garaia, egungo krisi-egoerara eraman gaituzten historiako beste momentu gogorarazten dizkigutenak. Ezin ditugu berriro errepikatu adreiluaren eta hormigoiaren bezalako burbuila espekulatiboak, krisi ekonomikoa eragin zutena eta orain errepikatzen dena. Ezin dugu **planeta suntsitzen** jarraitu alferrikako lan gehiagorekin, ingurumen-inpaktu handiak eta naturaren eredu harrapari hau mantentzen dutenak, osasun-, ingurumen- eta giza kolapsora eraman gaituena.

Gizartearren gorputz gaixoa berreraikitzeko ahalegin ekonomiko eta sozial guztiak zuzentzekeo garaia da. **Gizarte-zerbitzuak indartu** behar dira, baina, era berean, aurrezteak eta ekoizpen berriztagarriaren desentralizazioarekin markatutako **energia-politika** bat lortu behar da, **garraio publikoaren** eta sozialaren sarea hobetu eta zabaldu behar da, elikadura-subiranotasunera zuzendutako tokiko **nekazaritza eta abeltzaintza** bultzatu behar da, **hondakinen** aprobetxamendu arrazionala lortu behar da... Azken batean, behar diren urratsak eman behar dira **trantsizio ekosozial justu eta benetan**

jasangarri baterantz aurrera egiteko, multinazionalik eta espekulaziorik gabe.

Hori dela eta, Sustrai Erakuntza fundazioak Orain Ardura ekimenak deitu duen **mobilizaziora** joateko deia egiten du, AHTren dirua gastu sozialera bideratzeko. Nafarroan, manifestazioa **abenduaren 12an, larunbatean**, egingo da, **eguerdiko 12:00etan**, Iruñeko Nafarroako Gobernuaren egoitza den Diputazio Jauregiko atetik (Karlos III.a etorbidean) Espaniako Estatuko Gobernuaren Ordezkaritzan bukatzeko. Aurrekontuetako dirurik ez AHTrako, ez hemen, ez inon!

Nafarroan, 2020ko abenduaren 9a.

Sustrai Erakuntza Fundazioa

Web orrialdeak: www.sustraierakuntza.org eta www.fundacionsustrai.org

[Castellano]

La fundación Sustrai Erakuntza pide que el dinero del TAV se destine a la transición ecosocial

La iniciativa Orain Ardura - Ahora Responsabilidad ha convocado varias **movilizaciones** este sábado para pedir que los gastos que se realizan en el Tren de Alta Velocidad (TAV) se destinan a las necesidades sociales mas urgentes. Orain Ardura es una iniciativa de muy diversos sectores sociales que piden que **se racionalicen los gastos** que realizan los diferentes Gobiernos, para solventar con la mayor celeridad la crisis socio-sanitaria. En la fundación Sustrai Erakuntza creemos que esa reivindicación es mas necesaria que nunca.

Recientemente conocíamos como el Ministerio para la Transición Ecológica y el Reto Demográfico había **dado por completamente caducado el proyecto de TAV en la Comarca de Pamplona**. El TAV en Navarra es un proyecto que en los 9 años que lleva en obras apenas ha podido pasar de los 15 km de plataforma construida, para un total de más de 200 km. Es un proyecto en el que el Gobierno está **dilapidando dinero público**, cuando cerca de él y de manera paralela discurre ya un **ferrocarril** que tiene muchas **posibilidades de mejorarse** y cubrir todas las necesidades de transporte sostenible que existen en ese corredor.

En esta situación, y a pesar de la importante crisis económica en la que nos encontramos, el Gobierno de Navarra continua impulsando este proyecto, e incluso **se felicita por haber conseguido 62 millones de los Presupuestos Generales del Estado**. E incluso va más lejos y pide ampliar esa financiación a través de los Fondos Europeos para la recuperación económica tras la crisis del Covid.

Creemos que no es tiempo de mantener estas **obras caducas**, que nos recuerdan a anteriores periodos de la historia que nos han conducido a la actual situación de crisis. No podemos volver a repetir burbujas especulativas como la del ladrillo y el hormigón, que terminaron produciendo una crisis económica que ahora se repite. No podemos seguir **destruyendo el planeta** con más obras inútiles, que tienen grandes impactos ambientales,

y perpetúan este modelo depredador de la naturaleza que nos ha llevado al colapso sanitario, ambiental y humano.

Es tiempo de dirigir todos los esfuerzos económicos y sociales para reconstruir el maltrecho cuerpo de la sociedad. Se deben **fortalecer los servicios sociales**, pero también se ha de lograr una **política energética** marcada por el ahorro y la descentralización de la producción renovable, se debe mejorar y extender la red de **transporte público** y social, propiciar una **agricultura y ganadería** local dirigida hacia la soberanía alimentaria, un aprovechamiento racional de los **residuos**... En definitiva, necesitamos que se den los pasos necesarios para avanzar hacia una **transición ecosocial justa y verdaderamente sostenible**, sin multinacionales ni especulación.

Por todo ello, la fundación Sustrai Erakuntza llama a acudir a la **movilización** que ha convocado la iniciativa Orain Ardura, para pedir que los dineros del TAV se destinen a gasto social. En Navarra la movilización se realizará el **sábado 12 de diciembre a las 12:00 horas** en Pamplona/Iruña, con inicio en la puerta del Palacio de Diputación, sede del Gobierno de Navarra (en la Avenida de Carlos III) y final en la Delegación del Gobierno del Estado Español. ¡No al dinero de los presupuestos para el TAV, ni aquí ni en ningún sitio!

En Navarra, a 9 de diciembre de 2020.

Fundación Sustrai Erakuntza

Páginas Web: www.fundacionsustrai.org y www.sustraierakuntza.org

https://www.lahaine.org/mm_ss_est_esp.php/la-fundacion-sustrai-erakuntza-pide